



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2016/05/02

Batzar Nagusiek Urduñako geltokiaren irisgarritasuna hobetzea eskatu deusie Gobernu zentralari

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe gaur, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio batzordean, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu daben arauz besteko proposamena, Gobernu zentralari eskaria egiteko, Urduñako Renferen geltokiaren “barruko eta kanpoko irisgarritasuna hobetu daian”. Ekimen horretan eskaria egiten da, baita be, “nasatan eta material mobikorrean egin beharreko egokitzapenak egin daitezcan, desgaitasuna eta mobikortasun urria daben pertsonak tren unidadeetara sartu ahal daitezcan”.

Renfek eta Adifek Bizkaiko Aldirietako beste linea batzuetan barriztete lanak egin dituela eta daborduko Bizkaiko urirako geralekua barriztetako proiektua agindu dabela onartu arren, proposamena aurkeztu daben taldeen eretziz, Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin behar dabe C-3 linearen azkenengo geltokia “ahalbait arinen” barriztetea eskatu daben beste ahots batzuekaz. Holan, jeltzaleek eta sozialistek eurenaganatu egin ditue Urduñako Udaletik, Senadutik edo Arartekoaren bulegotik bertatik egin diran eskariak, “gizartearen aldetik laguntza handia” eta komunikabideetan oihartzuna izan dauen gaian, mobikortasun urria dauen Bizkaiko uri horretako emakume erabiltzaile batek aurkeztu dituan erreklamazioak dirala eta.

Gainontzeko taldeentzat be, neurria “beharrezkoa eta zuzena da”. Talde Mistoko Arturo Aldecoaren eretziz, Renfek konpromisoa hartu dau egin beharrekoa egiteko “errazoizko epean”, eta berak uste dauenez, hilebete batzuetan beharrak martxan egongo dira.

Batzarretako PP taldeak gogoratu dauenez, geltokiak barriztetako “daborduko martxan dagoan” plan bat egin dau Adifek, eta, ganera, eskaria egin deutso Madrili, egin beharreko hobakuntzak “ahalbait arinen egin daizan”. Urduñaren kasuan, batzordekide popularrak azaldu dauenez, gaitza da merkantzien trenak eta bidaiarien trenak zirkuletan daben instalazioak egokitzea.

Podemos Bizkaiak eskatu dauenez, behar horreek egiten diran bitartean, irisgarritasun arloko gabeziak salatu dituan Urduñako erabiltzailea leku batetik bestera joan ahal daiten “alternatibea” bilatu beharko litzateke. “Nahikoa da pertsona bakar batek bere mobikortasuna bermatuta ez eukitea” Administrazioari hori konpontzeko “neurriak jarri daizala” eskatzeko, adierazo dau Nuria Atienza batzordekideak, eta holango ekimen bat onartu ahal izateko “50.000 edo 100.000 sinadura” batu behar izatea penagarria dala gehitu dau.

EH Bildu be jeltzaleen eta sozialisten proposamenaren alde agertu da, baina Urduñako kasura murriztea deitoratu dau, C1, C2 eta C3 lineetan beste geltoki batzuek be “irisgarritasun arazo larriak” dituelako, “Olabeagakoak edo Basaurikoak”, adibidez, Zigor Izuskizak esan dauenez, eta gogoratu dau bere taldeak proposamen bat planteau ebala, Gobernu zentralari eskaria egiteko, Aldirietako trenen zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren esku itzi eian. PP taldeak egin dauen moduan, koalizino abertzaleak bere kexak Gasteizko Jaurlaritzara be zabaldu ditu, Euskotrenen geltoki “batzuen” egoera be “asko hobatu behar dalako”.

ELGUERORA (TRAPAGA) DOAN BIZKAIBUSEKO ZERBITZUA “NAHIKOA” DA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, batzordeak ez dau onartu Bizkaibuseko 3331 linearen maiztasuna handitzea eskatuz EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena, Trapagako Elguero auzorako. Koalizino abertzaleak linea horretako autobus “guztiak” ingurune horretatik pasatzea eskatu dau, gaur egun gertetan dan moduan egunean joaneko bost autobus eta itzulerako beste bost igaro beharrean. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak kontra agertu dira, euren eretxiz eskari mailea “oso urria” dalako, zerbitzu bakotxa, batez beste, “1,5 pertsonak” erabilten dauelako.

EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeak, une honetan Trapagan amaitzen dan linea horren ibilbidea “700 metro” luzatzearen alde agertu dira, horrek beste “5 minutu” bakarrik eskatuko leukelako, gidaritzako beharginen atsedenaldiak kaltetu barik. “Linea luzatzen badogu, erabiltzaile gehiagok erabiliko dabe linea”, azpimarratu dau Zigor Isuskizak. Bere eretxiz, neurri hori mesedegarria izango litzateke, batez be, “175 biztanle” dituan auzo horretako pertsona nagusientzat.

Talde Mistoagaz batera abstenidu egin dan PP taldeak eskaria egin dau, tarteko konponbidea bilatu daiten, taxi zerbitzua edo “txikibusa” ezarriz, Bedian egiten dan moduan.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek behin eta barriro esan dabenez, “oso gitxi” izango litzatekez onuradunak, eta bere ordutegien eta maiztasunen diseinua “behar besteko masan” oinarritzen dauen Bizkaibus sistemaren “jasangarritasunari eta errazionaltasunari” eutsi behar jako. Elgueroren kasuan, zerbitzua “nahikoa” da.

URDULIZKO GELTOKIA, 2017KO MARTIAREN BUKAERAN

EH Bilduk planteautako ahozko erantzun-eskeari erantzunez, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio foru diputatuak, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) iturriak aitatzuz, Urdulizko metro geltokia lur azpian sartzeko lanak “aurreikusitako epean, 2016. urtearen bukaeran” amaituko dirala esan dau gaur goizean, eta “funtzionamenduari eta puntuan jarteari jagokenez egin behar diran proba guztiak egin eta gero”, Bilboko Metroaren tren zerbitzua “2017ko martiaren bukaeran” helduko dala barriro Urdulizera.

EH Bilduk bere aldetik gogoratu dauenez, “197.000 pertsonari” zerbitzua emongo deutson Urdulizko ospitalea datorren bagilean zabalduko da, osorik ez bada be, eta horrek “ardurea” sortu dau eskualde horretan, ingurune horretako mobikortasunean izango dauen eragina dala eta, Urdulizen batez be, aparkalekuak dirala eta, eta Sopelan ospitalerako bidean dagoan udalerrria dalako. “Ikusiko dogu zein dan garraio publikoan izango dauen eragina”, esan dau.

Aldundiko arduradunak esan dauenez, Urdulizen egingo dan Ospitalera daroan errepidea urbanizauta egongo da “garagarrilaren haseran”, ospitalea zabaltzen danerako. “Orain daborduko zabalik dago”, –esan dau– “baina guztiz urbanizauta esan gura dot, behin betiko zoladuragaz, seinaleakaz, etab.”. “Dana dala, ospitalea martxan jarteko aurreikusten diran fase guztiak amaitu orduko, Metroak daborduko normaltasunez funtzionauko dau”, gehitu dau.

BILBOKO LPP



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio batzordearen beste une batean Vicente Reyesek azaldu dauenez, Foru Aldundia une honetan barrikusten ari dan Lurralde Plan Partzial bakarra Bilbo Metropolitarrakoa da. Horrez gain, barrikuspen horreen faseak be azaldu ditu. “Ez dogu gehiago hasiko”, esan dau. Erantzun hori, une honetan gauzatzen ari diran “Lurralde Plan Partzialak gauzatzeko prozesuen” ganeko ekimena aurkeztu dauen Batzarretako Talde Popularrari zuzenduta egon da.

Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, orain arte laneko hainbat jardunaldi egin dira –martiaren 10ean eta 11n– Bilbo Metropolitarra osatzen daben 35 udalerrietako alkateakaz, LPPa barrikusteko prozesua azaltzeko, eta hiru kontratu lizitau dira: aurrerapeneko dokumentuaren idazketea; partaidetzarako programa baten idazketea eta gauzatzea; eta aurrerapeneko dokumentuaren Ingurumeneko Ebaluazino Estrategikoaren ganeko beharrak egiteko kontsultoretzea eta laguntzea. Reyesek bere konpromisoa agertu dau, egindako beharren barri “urtero” emon daiten Batzar Nagusien aurrean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
02/05/2016

Juntas Generales pide al Gobierno central que mejore la accesibilidad de la estación de Orduña

El Parlamento de Bizkaia ha aprobado hoy, por unanimidad, en la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, una proposición no de norma presentada conjuntamente por los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, en la que se insta al Gobierno central a “mejorar la accesibilidad tanto interior como exterior” de la estación de Renfe de Orduña. En la iniciativa, se pide, además, que se “adapten los andenes y el material móvil que transita por la línea, para que las personas con discapacidad y movilidad reducida puedan acceder a las distintas unidades del ferrocarril”.

Pese a admitir que Renfe y Adif han hecho reformas en otras estaciones de las líneas de Cercanías en Bizkaia y han encargado ya un proyecto de reforma para la parada de la "ciudad" vizcaína, los proponentes consideran que las Juntas Generales de Bizkaia deben sumarse a otras voces que han reclamado, “lo antes posible”, una reforma de la estación última de la línea C-3 . Jeltzales y socialistas han citado así las demandas realizadas desde el ayuntamiento de Orduña, el Senado o el propio Ararteko, en un asunto que ha tenido “gran apoyo social” y repercusión en los medios de comunicación debido a las protestas de una usuaria con movilidad reducida.

Para el resto de grupos, la medida es también “necesaria y justa”. Según Arturo Aldecoa, del grupo Mixto, Renfe se ha comprometido “en un plazo razonable” y confía a que “en unos meses estén en marcha” los trabajos.

El grupo juntero del PP ha recordado que Adif ha elaborado un plan de reforma de estaciones, que “está en marcha”, al tiempo que ha pedido a Madrid que se lleven a cabo las mejoras “a la mayor brevedad”. En el caso de Orduña, el apoderado popular Jesus Isasi ha explicado la complejidad que supone adaptar las instalaciones por las que circulan unidades tanto de mercancías como de pasajeros.

Podemos Bizkaia ha pedido que mientras se ejecutan estas obras, se busque "una alternativa" para que la vecina de Orduña que ha estado denunciando las carencias de accesibilidad, pueda desplazarse. “Basta con que una persona no tenga garantizada su movilidad”, para demandar que la Administración "ponga los medios”, ha sostenido su juntera Nuria Atienza, quien ha lamentado que se tengan que reunir “50.000 o 100.000 firmas” para aprobar una iniciativa en este sentido.

EH Bildu ha apoyado también la propuesta de jeltzales y socialistas pero ha lamentado que sólo se refieran al caso de Orduña, ya que en las líneas C1, C2 y C3, otras estaciones tienen “graves problemas de accesibilidad” como “Olabeaga o Basauri” ha apuntado Zigor Izuskiza, quien ha recordado que su grupo ya planteó una propuesta para pedir al Gobierno central la transferencia del servicio de Cercanías al Gobierno vasco. Al igual que el PP, la coalición abertzale ha extendido las quejas al Ejecutivo de Gasteiz ya que “algunas” estaciones de Euskotren “dejan mucho que desear”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

SERVICIO DE BIZKAIBUS "SUFICIENTE" A ELGUERO (TRAPAGARAN)

Por otro lado, la comisión ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu para pedir un aumento de la frecuencia de la línea 3331 de Bizkaibus para el barrio de Elguero de Trapagaran. La coalición abertzale demandaba que “todos” los buses de esta línea pasaran por este núcleo urbano en lugar de los cinco de ida y cinco de vuelta que lo hacen en la actualidad. PNV y PSE-EE han justificado su rechazo en la “escasa” demanda detectada, ya que cada servicio es utilizado por “apenas 1,5 personas” .

Tanto EH Bildu como Podemos Bizkaia han abogado por estirar en “700 metros” los recorridos de esta línea que ahora terminan en Trapagaran que supondría apenas “5 minutos” más y que no perjudicarían los descansos del personal de conducción. “Si aumentamos la línea, aumentarían los usuarios” ha significado Zigor Isuskiza para quien la medida beneficiaría, sobre todo, a las personas mayores que habitan en este barrio de "175 habitantes".

Por su parte, el PP, que se ha abstenido junto al grupo Mixto, ha pedido que se apueste por una solución intermedia con la puesta en marcha de un servicio de taxis o "txikibus" como se hace en Bedia.

PNV y PSE-EE han insistido en que son “muy pocas” las personas beneficiarias y que hay que mantener la “sostenibilidad y racionalidad” del sistema Bizkaibus, que basa el diseño de horarios y frecuencias en una “masa suficiente”. En el caso de Elguero, el servicio es "suficiente".

LA ESTACIÓN DE URDULIZ, A FINALES DE MARZO DEL 2017

En respuesta a una pregunta oral planteada por EH Bildu, el diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorial, Vicente Reyes, citando fuentes de Eusko Trenbideak Sarea (ETS), ha asegurado esta mañana que las obras de soterramiento de la estación del Metro en Urduliz finalizarán “en el plazo previsto, a finales de 2016”, y que, “una vez realizadas todas las pruebas de funcionamiento y puesta a punto”, el servicio ferroviario de Metro Bilbao llegará de nuevo a Urduliz “a finales de marzo del 2017”.

Por su parte, EH Bildu ha recordado que el hospital de Urduliz, que dará servicio a “197.000 personas”, será abierto parcialmente el próximo mes de junio y este hecho, a su juicio, ha causado “preocupación” en la comarca por cómo afectará a la movilidad del entorno, especialmente en Urduliz por el tema del aparcamiento y en Sopela por su impacto como localidad de tránsito hacia el centro hospitalario. "Veremos la posible incidencia sobre el transporte público", ha dicho.

El responsable foral ha indicado también que la carretera que conducirá al futuro Hospital de Urduliz estará urbanizada "a primeros de julio", coincidiendo con las fechas de su apertura. “Ahora ya está abierta”, - ha señalado - “pero me refiero a totalmente urbanizada con firme definitivo, señalización, etc”. “En cualquier caso, antes de que se completen todas las fases previstas para la puesta en marcha del hospital, Metro funcionará ya con normalidad”, ha apuntado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PTP DE BILBAO

En otro momento de la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes ha explicado que el único Plan Territorial Parcial que la Diputación está revisando en la actualidad es el del Bilbao Metropolitano, así como las fases de revisión de que consta. “No iniciaremos mas”, ha asegurado. La respuesta iba dirigida al Grupo Juntero Popular que había presentado una iniciativa sobre “los procesos de elaboración de diversos Planes Parciales territoriales” que se están llevando a cabo.

El responsable foral ha informado que hasta la fecha se han realizado varias jornadas de trabajo -10 y 11 de marzo- con los alcaldes de los 35 municipios que conforman el Bilbao Metropolitano para explicar el proceso de revisión del PTP y que se han licitado tres contratos: la redacción del documento de avance; la redacción y ejecución de un programa de participación; y la consultoría y asistencia para la realización de los trabajos relativos a la Evaluación Ambiental Estratégica del documento de avance. Reyes se ha comprometido a que “anualmente”, se dé cuenta en Juntas Generales de los trabajos realizados.